

## hondo-hondotik

Josune Otamendi

(Osasun Sareko Psikologoak-eko kidea)

# Torturatuak, noiz arte?

**T**orturatuak izan direnei buruz eza-gutzen duguna, prentsaurrekoen bitartez irakurtzen duguna, edota, salaketa judicial eta publiko egiten diren-an, da. Baina, zer gehiago dakigu edo pentsa dezakegu? Amnistiaren aldeko Batzordeek datuak argitaratzean, zer sentitzen dugu? Zer eragin dauka gudan, preso, iheslari, errefuxiatu eta atxilotuak izan direnen sendiak, behin eta berriro, kalean gora eta behera berauen argazkiak eskuan kezkatu baina harro, nekatuta baina tinko, begirada samina bezain bizkorra eta kuttuna, *paseo-an* ikusteak? Giza eskubideak aldarrikatzen dira eta, zer diozue, hauek ez ote gizakiak?

Torturaz asko hitz egiten da, baina jendeak ez daki gauza handirik horren ondorioei buruz. Datu batzuk dira agerian jarri nahi ditugunak. TATk (Torturaren Aurkako Taldeak) 2000. urtean jarraipena egin dio komisariatik igaro den hainbat pertsonari: 40ri zehazki. Beren esperientziaren testigantza ez ezik, gertaera horrek utzi dizkien arrasto psikologikoak ere jaso dira. Horrela, 40 subjektuen artean %37,5ek (15 kasu) antsietate sintomak zituen, %40k (16 kasu) depresioa zuen, trauma ondoko sintomak %57,5ean (23 kasu) ageri ziren eta sintomarik gabekoak 9 (%22,5) soilik ziren.

Berrogei pertsona horietako 20ri, handik hilabetera berriro egin zitzairen galdeketa berbera, haien bilakaera aztertzeke. Emaitzak hauek izan ziren: aske geratu eta hilabetera, antsietatea %30ek zuen (6 kasu),

depresioa %35ek (7 kasu), trauma ondoko sintomak %70ek garatu zituen (14 kasu) eta sintomarik gabeak %15 (3 kasu) ziren.

Beste asko daude ezkutuan geratuko direnak, eta beste asko izango dira hemendik urteetara jakingo direnak, Txile, Argentina eta hainbat herrialdetan gertatzen ari den bezala. Orduan esango da, eskuak buruan, hau guztia gertatu da gure herrian? Hau guztia eta askoz gehiago ari da gertatzen gure Euskal Herri maitean, eta oraintxe bertan, ez duela berrogei urte soilik.

Deigarria da torturatu gehienek *trauma ondoko estresa* izenekoa garatzen dutela ikustea. Izen horrekin gertaera lazarri baten ondoren agertzen den sintoma multzo bat adierazten da. Mota askotakoak dira, hala nola gertaerak behin eta berriro gogoratzea, jendearengandik urrundu nahia, gertaera oroitarazten duen ekintza edo pentsamendu oro saihestea, bat-bateko erreakzioak eta haserrealdiak, etsipena eta abar luze bat. Askok diren arren, hemen subjektuak egoera horren artean erabiltzen dituen bi defentsa mekanismo azalduko ditugu, oso sarritan ikusten baitira:

1.- *Desplazamendua*. Nork bere burua babesteko, sufrimendua hain latza izan denean, pertsonak erabiltzen duen mekanismoa da. Barne bizipenak denbora igaro ahala garatzen dira eta hor dagoen grina beste objektu eta egoeretara desbideratzen da. Haserrearekin onahi ateratzen dira edo ikasketak porrot egiten dute e.a. «*Denborak dena ahaztuazten du*» esan ohi da

baina beti ez da horrela gertatzen; izan ere, hor estaltzen dena gero ustelduago eta pozoituago ager daiteke, eta kaltegarria izan pertsonarentzat. Berdin gertatzen da, jasangarri sufrimendua inkontzienteki eragotzi nahirik (eta ukatuz) torturatu izan dena tinko, beldurrik gabe eta lanerako gogo sutsuaz agertzen bada baina gertaera hor landu gabe badago.

2.- *Somatizazioak*. Berriro ere sufrimendua saihestu nahirik edo sentitu ezin denean (hain da bortitza oinazea), eta are gutxiago hitzetan jarri, —«*bai, ni torturatu izan naiz baina ondo nago, eutsi diot*»—, esan eta bizitzen du norberak, baina barneko mina barnean geratu bada, txinaurriak bezala ari da lanean, eta gero, gaixotasun fisiko bilakatuta ager daiteke. Biriketako, eztarriko, azaleko e.a. minbi-ziak edo bestelako gaitzak ezagunak dira gure artean.

Gauza da, tortura fisiko zein psikologikoak, gertaera larri bat izanik, norberaren baliabideak, indarrak, autoestimua eta nortasuna bera kinka larrian jartzen dituela, zauri sakonak eta erru sentimenduak eragiten baititu.

Denon ahaleginari esker duintasunezko eta osasun bideari helduz irtenbideak topatu behar ditugu. Ardura, zu, nire, gu guztiona da. Geure kontzientziak esnarazi, sentsibilitate osoz elkarlaguntzak, auzolanean bezala, bideratu eta Herri honen ezaugarri nagusia den solidaritateaz jokatu beharra daukagu.

Eva Forest

(Idazlea)

# Garai latzak

**G**arai latzak bizi ditugu, arrisku handikoak. Ehunka lagun kartzeletan sakabanaturik, ehunka lagun torturaturik, edozein aitzakiarekin atxilotuko gaituzten mehatxua nonahi. Ez dugu bermerik askatasunez hitz egiteko. Badugu beldurrez egoteko arrazoirik. Eta ona da, gaur hemen ari garen bezala, elkartu eta geure gauzetaz hitz egitea, inork aipatzen ez dituen gauza horiek ez direla gertatzen uste baitu askok, geuk asmatu ditugula.

Garai xelebreak dira, nahasmen handikoak: hedabideek mundua atzekoz aurrera erakusten digute. Bozeramaile asko dago ikuspegi faltsu hori zabaltzen, eta pertsona sinestor asko eta asko nahastu egiten dituzte.

Erakundeetan indarkeriaz horrenbeste hitz egiten duten garai honetan —baita nonahi entzuten ditugun tertulietan, edo kalean, bakearen alde indarkeria amaitzeko eta beste hainbat aldarrikapenentarako leloz jositako manifestazioetan— susmagarria dirudi inork ere tortura ez aipatzea, ezta kartzeletan egiten den eskubide urratzea ere. Hain da susmagarria, ezen horrelako gauza larri bat

isiltzeak bakarrik gogoeta eragin beharko liokeela oraindik konturatu ez den hainbat fedee oneko jenderi. Jendea ohartarazteko balio beharko luke, gezur handi horien atzean zer dagoen miaztera bultzatu beharko lukete.

Egia da, hemen, Euskal Herrian min handia eragiten duen indarkeria bizi dugula. Ez dute esaten, ordea, indarkeria, neurri handi batean erakundeetatik datorrigula. Eta indarkeria horren adierazgarri nabarmena —nazioarteko erakundeentzat— tortura da. Alde batetik tortura zorrotza: barkatze egunetan, komisariatetan, kuarteletan, lekualdatzeetan... egiten dutena; bestetik, tortura kronikoa eta maltzurra: kartzeletan sakabanaturik dauden presoek behin eta berriro sufrizten dutena.

Eta erakundeek eragindako bi bortxaketa horiek giza eskubide oinarrikoenak nabarmen urratzea dituzte. Tertulietan, manifestazioetan eta adierazpen ofizialeetan horrenbestetan aipatzen dituzten eskubide horiek bere esanahia galdu dute.

Baina honetaz guztiaz inork ez du ezer esaten. Horregatik gaurkoa bezalako elkarreta-

ratzeak oso garrantzitsuak dira. Garrantzitsuak da horrenbeste gezur onartzen ez duen jendea biltzea eta zer gertatzen ari den azaltzea. Ez du axola jende gutxi ala asko biltzen garen. Axola duena horrelako ekimenak han eta hemen egitea da. Bai Euskal Herri osoan eta bai Euskal Herriko mugetatik harantz, bigabekeria gertatzen den toki guztietan, zer gertatzen ari den adieraziko duen jendea egotea da garrantzitsua, makurtuko ez direla eta etsiko ez dutela adieraziko dutenak. Biltzarrok txikiak izanik ere asko dira, eta bata bestearekin lotzean erresistentzia sare zabal bat osatzen dute.

Hau da gure herriaren indarra. Herri honek, bere historia gogoan izateaz gain etendako borroka haren indarra hartu eta borroka berriak sortu ditu, irudimen forma berriak «Ezingo dute» esateko. Eta duintasunez jarraituko dugu, herri bezala bizitzari eusteko ahalmena dugula frogatuz.

Joxe Arregi torturatu hil zeneko 20. urteurrena dela eta Zizurkilan eginiako ekitaldian irakurri zuen idatzi hau Eva Forestek.

Erredakzioan itzulia

## hirusta

Xabier Gantzarain

# Bizirauteko argibideak

**H**ola, Jota. Ia ahaztua ninan hamabostean behineko hitzordua.

Neure baitara bildua bizi naun oraindik. Margotzen ari naun. Eta ez dinat asmatzen Zumetaren urdina eta odolaren gorria ezkontzen. Gehiegi erretzen dinat. Nire birrikak trementinaz puztuta zeuden. Eta ez naun beste ezertan pentsatzeko gai.

Bazekinat mila auzi garrantzitsu direla hor zehar. Langileak greban ditun soldata hobearen xerkan. Esan ninan. Norberaren patrikan egosten dun iraultza. Eta ni ere langilearen buzoa jantzita ari naun barrenak mihiseetara husten. Ez zekinat nola ezkutatu Basquiaren eragina. Ez dinat ezkutatu eta kitto.

Gaztetasuna bukatu eta bizirauteko argibideak galdu zaizkidala konturatu naun. Egunero inprobisatzen dinat irribarreren bat gorroto dudan jendearentzat. Ez dezatela jakin ez niekela bizitza barkatuko. Ez dezatela jakin sortarazten duten minak euren ateetara deituko duela bestaldera begira daudenean. Bizi daitezela zoriontsu euren urrezko kairoletan.

Audi batek zapalduta hesteak lehertuko zaizkiela ez zient nik esango. Ezin ditinat Zumetaren urdina eta odolaren gorria ezkontu.

Baina margotzen jarraitzen dinat. Koloreak nahasten dizkinat piper potok izandakoetan. Bazekinat neuk asmatu behar ditudala neure minaren koloreak. Bazekinat neuk bilatu behar ditudala bizirauteko argibideak. Kureishiren liburuetan edo Rothkoren koadroetan. Ilargi beteko gauetan edo S.ren telefonozko ahotsean. Neuk bilatu behar dinat neure burua hobeto ezagutzeko modua. Lagunduidan.

Aspaldian politika ez dudala hizpide hartu. Hori esaten dun jaso dudan azken imelean. Bada esango dinat ez dudala denbora alferrik galdu nahi. Nigatik, Zakilixut lehendakari. Berak ematen zizkidan bizirauteko argibideak. Maite haunat.